



Ruth Lazkoz Saez
Astrofisikaria

“Momentuz, misterioak jarraitzen du”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Ruth Lazkoz Saez (Bilbo, 1971) EHUko Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia saileko irakaslea eta ikertzailea da, eta, uztailetik, baita Espainiako Erlatibitate eta Grabitazioaren Elkarteko lehendakaria ere (SEGRE). Besteak beste, unibertsoaren hedapena ulertu nahian dabil ikertzen, eta eman dituen erantzunetan ere ez da urrundu beretzat eguneroko lana den gaitik: unibertsoaren misterioak.

Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Grabitazio-uhinen aurkikuntzak. Sekulakoa izan zen: elkartu ziren Fisika eta Ingeniaritza; kalkulu zehatz pila bat egin behar izan ziren Erlatibitate Orokorren ildotik, Astrofisika ere barne hartuta; eta nazioarteko ahalegina izan zen, korrelazioa aurkitu behar baitzen seinaleen artean. Niri mirakulu bat iruditzen zait; proiektuan sartuta daudenen-tzat agian ez da izango hainbesterainokoa, baina kanpoan gaudenontzat, koordinazioaren ikuspegitik, lorpen izugarria da. Muga bat zeharkatu dugu, beste alde batera pasatu gara.

Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke zure ibilbidean?

Beharbada, posible izango dela espero dugulako, materia iluna zer den argitzea nahiko nuke, edo materia ilunarekin lotutako partikula bat aurkitzea. Azeleragailuren batean izango litzateke, seguru asko, astrofisikoki zaila izango bailitzateke.

Oraindik ez dakigu. Aurkitu berri dira galaxia batzuk, antza, materia ilunik ez dutenak, eta, beraz, are garrantzitsuagoa izango litzateke argitzea eta jakitea zer dagoen haietan, edo Einsteinen teorien doiketa bat egin behar ote dugun... Partikula hori aurkituz gero, izango genuke bidea galaxia horiek ulertzeko. Bestela, berriz, ez bada partikularik aurkitzen, espekulaziorako bide zabala irekiko litzateke. Momentuz, misterioak jarraitzen du. ●